

Euzkadi eta haurgintza

Deia, 1977-09-14.

Guraso denak, ba daki haurgintzak zenbat kezkatzen duen.

Garaia heldu aurretik, ametsak: Mutila ala neska izango ote den; zer izen izen jarriko, eta euskeraz edo erderaz. Gero, noren antzeko aterako den, eta polita edo handia. Lehenengo amets hoietan ez da gorputz-baldarkeri edo total edo memelkeriaz gehiegi pentsatzen: ametsa, ametsa da, eta inoiz arrisko hoiien beldurrak inor xulatzen badu ere, paso.

Gerora gaitezen ametsetan ari garela.

Haur berriaren zain dauden guziak ari izaten diren bezala.

Ametsa, behar dugu, eta gure osasunerako, pizka bat egin; gainera, ametsak inoiz egi bihurtuak ere ba dira.

Eta hontan gaude oraindik.

Haurra hemen dator, bidean da.

Minak, hasiak aspaldi.

Familiakoak asko gara, eta denok sentitzen gara datorren haurgintza honen arduradun. Ezin gutxiago. Eta denok jaio berri honentzat onena nahi dugunez, hasiak gara, ametsak direla medio, jaioko den haurrak nolako dohaiak izango dituen, zer karrera ikasiko duen pentsatzen, eta herriaren eta gizartearen alde zenbat gauza eder egingo dituen ametsetan.

Senideak asko diranez, ez da harritzekoa denak ados ez egotea.

Eta odol beroak diren batzuk, hitzetatik aurrera ere pasatzeko kinalak egitea.

Oraindik dena alferrik, ordea; haurra ez baita jaio ere. gainera, haurgintza bera zaila izango dela ere zabaldua da; sendagileak eta enplasteroak hontan hitz-maila berdina ote duten ere esaten da; ez dakigu noren eraginez. Zumalakarregi-ren itxaropenak, eta arabera herrikoak, enplastero bat tarteko zela ola hil ziren familiari ez zaio oraindik ahaztu!...

Baina haurra jaio aurretikoak direla-ta, famili arteko konponbideak hausteko arriskorik bada, ez al da hobe jaioarterako hontan itxogitea?

Haurra hilda jaiotzea ere ditekena baita.

Ditekena da, ere, forzeps (hau indarretik datorren hitza da) delako erramintekin haurraren buruari kalteak egin eta elbarri jaiotzea; eta, agur gure ametsak!

Haurra zer izango den, nolako dohaiekin jaio eta zenbaterainokoak egin hasiko dizkiogun, hori dena gero erabakiko du familian.

Bitartean, lagun dezaiola sendagilerik onenak jartzen eta haurra. Euzkadi, ahalik eta ondoen jaiotzen.

Gerokoak, gero.